



Testuak Irakurketa Errazean

Gure erakundearen jokabide  
printzipio eta arauak

# Kode Etikoa

Koordinatzaile: Lantegi Batuak

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen du

# Aurkibidea

Zer da Kode Etiko bat? .....	4
Zergatik Kode Etiko bat Lantegi Batuak-en? .....	4
Nork bete behar du Kode Etikoa? .....	6
Nola erabili Kode Etikoa? .....	7
Jokabide printzipio eta arauak .....	8
■ Errespetua, duintasuna eta eskubideak	
■ Justizia eta gizarteratzea	
■ Autonomia	
■ Pribatutasuna	
■ Zuzentasuna eta legeari errespetua	
■ Kalitatea eta etengabeko hobetzea	
■ Gizarte eraldaketa	
<b>KANALAN: Gertakarien komunikazio kanala .....</b>	<b>24</b>

## Zer da Kode Etiko bat?

Kode **Etiko** bat pertsonak babesten dituen arau multzo bat da eta nola jokatu behar dugunari buruzko printzipio multzo bat.

Erakunde baten Kode Etikoan jokabide arau hauek zeintzuk diren azaltzen da, erakundeko pertsona guztiek ezagutu ditzaten eta beraien lanean horrela jokatu dezaten.

## Zergatik Kode Etiko bat Lantegi Batuak-en?

Lantegi Batuak **irabazi asmorik gabeko** erakunde bat da eta desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako lan aukerak sortzen ditu, batez ere desgaitasun intelektuala dutenentzat eta bizkaitarrak direnentzat.

Gure helburu nagusia da lanaren bitartez desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu ahal izatea eta lan garapen eta bizi kalitate hobea lortu ahal izatea.

Horretarako lan ekimen iraunkor eta lehiakorrak kudeatzen ditugu. Pertsona hauei ibilbide ezberdinak eskaintzen dizkiegu lan munduan lanbideratzea lortzeko.

### **Etiko:**

Zeozero etikoa da, egokia eta bidezkoa denean.



### **Irabazi asmorik gabeko:**

Bere helburu nagusia ez da dirua irabaztea.


Ibilbide horren hasieratik bukaerara zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkiegu.

Lantegi Batuak-en denon proiektu bat daukagu: beti pertsonetara zuzenduta dagoena. Gure proiektuak balio batzuk ditu, gure helburuak lortzeko gure lan egiteko modua gidatzen duten ideiak dira.

Lantegi Batuak-eko Kode Etikoa bete behar diren **printzipio** eta jokabide arau multzo batez osatua dago. Ez badira betetzen salatu egin behar da.

#### Printzipioak:

Gure ekintza eta portaerak beti gidatu behar dituzten ideia eta pentsamenduak dira.






## Nork bete behar du Kode Etikoa?

Lantegi Batuak osatzen duten pertsona guztiei eragiten die Kode Etikoak. Erakundeetan lan egiten duten pertsonen, baina baita agintzen dutenei eta erakundearekin erlazionatzeko diren beste pertsonen ere.

Kode Etikoak nola eragiten dien ikusteko, pertsonak 3 taldeetan banatu ditugu:

- Pertsona guztiak
- Zeharkako postuak dituzten pertsonak
- Arduradun diren pertsonak

LANTEGI BATUAK	TALDEA	NORK OSATZEN DU TALDEA?
	Pertsona guztiak	Langileak + <b>Patronatuko</b> kideak
	Zeharkako postuak dituzten pertsonak	Zuzendaritza taldeko langileak + <b>A, B eta C</b> talde profesionalen langileak
	Arduradun diren pertsonak	Zuzendaritza taldeko langileak + <b>A</b> taldeko langileak eta <b>B</b> taldeko zenbait postu (kudeaketa edo pertsonen arduradunak)

**Patronatua:**  
Fundazio bat ordezkatzeko duen pertsona taldea.

**A, B eta C:**  
Lantegi Batuak-eko lan hitzarmenaren arabera dira.

**A taldea:**  
Kudeatzaileak.

**B taldea:**  
Teknikari eta profesionalak

**C taldea:**  
Administrari eta laguntzaileak.

## Nola erabili Kode Etikoa?

Kode Etikoa indarrean 2007ko Maiatzaren 8an jartzen da. Lantegi Batuak-eko Patronatuak onartzen duen egunean.


Kode Etikoko arauak bete ahal izateko Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek ezagutu behar dituzte.

Arau hauek betetzen ez badira, hau nola salatu dezaketen ere ezagutu behar dute. Arauak betetzen ez direla salatzen bada, gertakariak ikertuko dira eta hitzarmenean datozen zigorrak jarri daitezke.

Lantegi Batuak-eko Betetze Unitatea hurrengoaz arduratzen da:

- Pertsona guztiei Kode Etikoaren hedapena bultzatu, honen bidez:
  - Kodea azaltzen dituzten ikastaroak
  - [www.lantegi.com](http://www.lantegi.com) web-orrian argitaratuta
  - Intralan-en argitaratuta
- Kodea betetzen dela zaindu
- **Kanalan**-en bitartez gertakariak kudeatu

Beharrezkoa denean kodea berrikusi eta aldatu daiteke. Aldaketa hauek Patronatuak onartu behar ditu.



### **Kanalan:**

24 orrialdean kanal hau zer den eta nola erabiltzen den azalduko dizugu.

## Jokabide printzipio eta arauak

### ■ ERRESPECTUA, DUINTASUNA ETA ESKUBIDEAK

**Pertsonen duintasuna beste edozein pertsona bezala antzeman eta tratatua izatea da, diferentziara errespetua izanda.**

**Pertsona guztiek dute eskubide hau, nahiz eta gaitasun, egoera pertsonal, bizitza edo lan egoera ezberdinak izan.**

Printzipio hau kontuan izanik:

#### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek:

- Besteak errespetu eta duintasunez tratatuko dituzte.
- Edozein tratu txar motari uko egingo diote: gehiegikeria, eraso, baztertze edo tratu txar.

#### Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Autonomia eta gaitasun gutxiago duten eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonen eskubideak babestu eta defendatuko dituzte.
- Bere eskubideak berdintasunean gauzatu ditzaten behar dituzten laguntzak eskainiko dituzte.

#### Arduradun diren pertsonak:

- Pertsonen lan hobetze eta hobetze pertsonalen emaitzak ebaluatuko dituzte.
- Lan aukerak erraztuko dituzte, pertsonen mugak baino, batez ere beraien gaitasunak kontuan hartuz.



- Laguntza eta ikastaroen bitartez, pertsoneri beraien lan garapen eta garapen pertsonalean hobetzen lagunduko diete.

ESKUBIDEAK



PERTSONAK



DESGAITASUNA



Errespetua, duintasuna eta eskubideak

## ■ JUSTIZIA ETA GIZARTERATZEA

Bidezko moduan jokatzeko da pertsona bakoitzari dagokiona ematen zaionean. Gizarteratzea pertsona batek beste edozein herritarren eskubide berdinez gozatzen duenean ematen da eta gizartean parte-hartzen du honen barnean dagoelako.

Printzipio hau kontuan izanik:

### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiak:

- Era pertsonalizatuan tratatuak izango dira, bakoitzaren planaren arabera (nahi, behar eta laguntzak).
- Tratu txarreko egoerak edo bidegabekeriak salatu beharko dituzte.

### Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Aukeren berdintasuna bermatu behar dute, horretarako hurrengo portaera izango dute:
  - ez **diskriminatzailea**
  - irizpide objektibo, argi eta ulergarriekin
  - aurreiritzi eta **favoritismo**rik gabe
- Laguntza behar gehien duten pertsonen gizarteratzea bermatu behar dute (orientatze, ikastaro, egokitapena...)

#### **Diskriminatzaile:**

Pertsona bat okerrago tratatzea, arrazoi batengatik (arrazo, desgaitasun, iritziengatik...) besteak baino gutxiago izango balitz bezala.

**Favoritismo:** Pertsona bati ematen zaion faborezko tratua, berdinean edo gehiago merezi duten beste pertsonen kalte eginez.

### Arduradun diren pertsonak:

- Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa bultzatu behar dute, adimen desgaitasuneko pertsonena bereziki (neurri positiboak, barneko deialdiak...)



GIZARATERATZEA





JUSTIZIA



AUKEREN  
BERDINTASUNA



Justizia, gizarteratzea



## ■ AUTONOMIA

**Eragiten digunari buruz erabakitzeko eta jarduteko askatasuna da autonomia pertsonala.**

Printzipio hau kontuan izanik:

**Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek:**


- Pertsonen estima, irudia edo **ohorea mindu** dezaketen portaerak ekidingo dituzte.

**Zeharkako postuak dituzten pertsonak:**

- Iritzia emateko eta erabakiak hartzeko pertsonen autonomia errespetatuko dute.
- Pertsonen parte-hartzea bultzatuko dute beraien laguntzak egin eta ebaluatzeko, hurrengoaren bitartez:
  - entzute aktiboa
  - hizkuntza egokia
  - iradokizunak eta kexak nola egiteko informazioa
- Familiarteko eta tutore diren pertsonekin era positiboan erlazionatuko dira, hauek hurrengoaren ahal izateko:
  - iritzia eman eta proposamenak egin
  - balorazio eta erabakiez informatuak egon
  - pertsonaren lan-prozesuan parte hartu
  - baliabide eta laguntzak eduki

### **Ohorea mindu:**

Adibidez, norbaiti ez duela ezertarako balio edo gauzak gaizki egiten dituela esaten diotenean.



ENTZUTE AKTIBOA



AUTONOMIA

Autonomia

## ■ PRIBATUTASUNA

**Pertsonak beraien intimitatea edukitzera eskubidea dute. Intimitatea besteengandik babesten dugun pertsona baten bizitza pribatua da.**

Printzipio hau kontuan izanik:

### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek:

- Pertsonen intimitatea errespetatuko dute eta beraien bizitza pribatu eta pertsonaleko informazioa babestuko dute, datu ekonomiko edo osasunekoak adibidez.
- Lantegiko lanarekin edo bezeroekiko erlazioari buruzko informazioaren **sekretu profesionala** gordeko dute.
- Lantegiren edo besteen produktu, programa eta zerbitzuen **jabetza intelektual** eta erabileraren eskubidea errespetatuko dute.

### **Sekretu profesionala:**

Lanbide batzuetan pertsona batek bere lana egiten ezagutu dituen berriak edo datuak ez kontatzeko betebeharra dago. Adibidez, sendagile edo abokatuek bere paziente edo bezeroei buruz.

### **Jabetza intelektual:**

Norbaitek zerbait asmatu, liburu bat idatzi edo zeozer artistikoa sortzen badu, hau egin duen pertsona egiletzat onartu behar da.

### Arduradun diren pertsonak:

- Familiarteko edo tutore diren pertsonen pertsonarentzat aldaketa edo arrisku egoerez informazioa emango diete, honi buruz erabakiak hartu ahal ditzaten.

**BEREZOEN DATUAK,  
PRODUKTUAK**

**DATU  
PERTSONALAK  
(intimitatea)**



**Pribatutasuna**



## ■ ZUZENTASUNA ETA LEGEARI ERRESPETUA

**Legeak pertsona guztiek bete behar ditugun arauak dira. Legeak debekatzeko dituen portaerak daude eta gizartearentzat egokiak eta positiboak diren beste portaera zuzenak daude.**

Printzipio hau kontuan izanik:

### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek:

- Legez behartuta daudena beteko dute, Kode honen eta erakundearen barneko arauekin batera.
- **Segurtasun eta Osasuneko gaitan**, eta lan giro osasuntsu, irisgarri eta segurua bermatzeko hurrengoak egin beharko dute:
  - Babesteko ekipamendua erabili
  - Segurtasun seinale eta oharrak errespetatu
  - Arduradunei pertsonentzako egon daitezkeen arriskuei buruz edo eskubide bat betetzen ez bada informazioa eman
- **Ingurune**ko gaitan, bere babeserako, kalteak gutxitzeko eta Segurtasun eta Osasuneko gaitan, eta lan giro osasuntsu, irisgarri eta segurua bermatzeko eraginkortasun energetikoa hobetzeko, hurrengoak egin beharko dute:
  - Ingurumen arauak bete



- Portaera etiko eta legezko gaietan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, hurrengoa egin beharko dute:

- instalazio, material eta baliabideak zaindu
- lan erabilpenerako bakarrik erabili (erabilpen pertsonalerako baimena behar da)
- informazio zuzena eta egiazkoa eman
- besteen aurrean Lantegi Batuak-en irudia eta ospea kaltetu dezaketen portaerak ekidin
- erabaki hartzean eragin dezaketen **opari**, diru, zerbitzu edo bakoitzaren aldeko tratuak ez onartu

**Opari:**

Promozio motako opariak onartu daitezke, 100 euro baino gutxiago balio badute, ekitaldietara gonbidapenak... baina erakunderako badira, ez pertsonarentzako.

**Zeharkako postuak dituzten pertsonak:**

- Portaera etiko eta legezko gaietan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, ezingo dute hurrengoa egin:

- besteen erabaki hartzean eragiteko opari, zerbitzu edo mesedeak eskaini
- legezkoak ez diren eragiketa ekonomikoak egin edo baimendu
- erakundearen eragiten duten erabakietan **bakoitzaren interesak** lan interesen aurretik jarri

**Bakoitzaren interesa:**

Adibidez, familiarteko baten alde egin hornitzaileen aukeraketan, langileen kontratazioan...

## Arduradun diren pertsonak:

- Segurtasun eta Osasuneko gaitan, eta lan giro osasuntsu, irigarri eta segurua bermatzeko hurrengoa egin beharko dute:

- arriskuen prebentziorako arauak bete daitezen informazioa eta ikastaroak eman
- pertsonen lanean haste edo postu aldaketetan erantzukizunez jardun eta segurtasun eta osasuna zaindu

- Inguruneko gaitan, bere babeserako, kalteak gutxitzeko eta **eraginkortasun energetikoa** hobetzeko, hurrengoa egin beharko dute:

- ingurumen arauak betearazi
- baliabideen erabilera ona egin eta kudeatu

- Portaera etiko eta legezko gaitan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, ezingo dute hurrengoa egin:

- besteen erabaki hartzean eragiteko opari, zerbitzu edo mesedeak eskaini
- Lantegi Batuak-en printzipio eta legaltasunetik kanpora jardun eta edozein **ustelkeria** mota onartu

### **Eraginkortasun energetikoa:**

Ez gehiegi erabili edo gure energiaren erabilera murriztu (gas, ura, argindarra...) Gehiago ekoiztu energia gutxiagorekin.

### **Ustelkeria:**

Norbaitek bere onurarako boterearen (politikoa, ekonomikoa...) erabilpen txarra egiten duenean.

# Zuzentasuna eta legeari errespetua



## ■ KALITATEA ETA ETENGABEKO HOBETZEA

**Gure erakundearen kalitatea pertsonen lan onean eta gauzak gero eta hobeto egiteko saiatzean daude bideratuta.**

Printzipio hau kontuan izanik:

### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiak:

- Lanean eta bezeroekin profesionalak izan behar dira, erakundearen arauak jarraituta.
- Produktuak eta zerbitzuak egiazko informazioa eman ez eskaini eta saldu beharko dituzte.
- Bezeroen datuez erabilera ona egin beharko dute. Ezin dira hauek beste inori saldu edo eman.
- Ardura, lankidetasun eta eraginkortasunez taldean lan eta jardun behar dira.
- Bakoitzaren ezaguera eta trebetasunen etengabeko hobetzean saiatu beharko dira.

### Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Bezeroen datuak benetakoak direla egiaztatuko dituzte.
- Produktu eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko beti **berritasuna** bilatuz lan egingo dute.

#### **Berritasuna:**

Zeozero berria dakarren edo duen aldaketa da. Adibidez: telefono mugikorra berritasuna izan zen, lehenago telefono finkoa bakarrik zegoelako.

### Arduradun diren pertsonak:

- Material eta zerbitzuen hornitzaileekin erlazioetan aukeratu, esleitu eta erosteko momentuan, Kode honen arauak eta gardentasun eskakizunak errespetatuko dituzte.
- Hornitzaileei Lantegi Batuak-ekin dituzten jarduera eta erlazioetan legeak betetzea eskatuko diete.
- Jasotako diru-languntzen kudeaketa zuzenduko dute eta **auditoretzak** egingo dituzte.

#### **Auditoretza:**

Erakunde baten kontuetan kanpoko norbaitek egiten duen ikuskapena.

## Kalitatea eta etengabeko hobetzea

BENETAZKO INFORMAZIOA



LAN TALDEAK



ETENGABEKO HOBETZEA

## ■ GIZARTE ERALDAKETA

**Gure erakundearen helburuetako bat gizarte hobea eta gizarteratze handiago duena lortzen laguntzea da. Desgaitasuna duten pertsonak onartuak diren eta aukera berdinak dituzten gizarte batean.**

Printzipio hau kontuan izanik:

### Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek:

- Ingurunea errespetatzeko konpromisoa hartuko dute bere jarduerarekin ingurunea babestu eta posible den gutxieneko mina egiteko.

### Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Bere aukeren neurrian, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz gizarte sentsibilizatze foro eta sareetan parte hartuko dute.


### Arduradun diren pertsonak:

- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzean ere lan egiten duten beste erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituko dira.
- Ahulen diren pertsonen beharretan begirada jarriz eta lehentasuna emanaz lan egingo dute.
- Desgaitasuna duten pertsonen trebetasun eta ahalmenei buruz beste erakunde eta pertsonak sentsibilizatuko dituzte.



**ESKUBIDEEN DEFENTSA**

**GIZARATERATZEA**



**Gizarte eraldaketa**

## KANALAN: Gertakarien komunikazio kanala

Lantegi Batuak-eko diren pertsona guztiek jokabide printzipio eta arau hauek betetzeko betebeharra dute.

Egoera baten aurrean nola jokatzeko zalantza badaukate kontsulta egin ahal izango dute eta legearen edo Kode Etiko honen arauen kontra doazen jokabideez informazioa eman. Horretarako, erakundeko pertsonak Kanalan daukate, gertakari guzti hauek komunikatzeko kanal bat.



### Nola komunika daitezke gertakariak?

- Internet bidez
  - [kanalan@lantegi.com](mailto:kanalan@lantegi.com) helbidera mezu elektronikoa bidalita
  - Lantegi-ko Intralan-ean (Kanal atala) agertzen den formularioa beteta (apartado Kanalan)
- Telefonoz
  - XXX zenbakira deituta
- Postaz
  - Hurrengo helbidera:  
Betetze Unitatea  
Txorierri Etorbidea, 12  
48180 Loiu (Bizkaia)



## Jasotako informazioak hurrengoa jaso behar du bideratua izan dadin:

- Informazioa bidaltzen duen pertsonaren izena, abizenak eta NAN zenbakia.
- Gertakariaren zergatia azaltzen duten ekintzen deskribapen laburra eta hau nola jakin den.
- Gertakarian parte hartu duten pertsonak eta arlo, unitate, zentro eta zerbitzua.
- Gertakariaren ekintzak egiaztatuko dituzten edozein proba edo daturen erreferentzia.

## Hurrengo informazioa ez da onartuko:

- Anonimoa.
- Osatugabea.
- Lege edo Kode Etikoaren kontra ez doan jokabidea bada.

Kanalan-en bitartez jasotzen den informazioa Lantegi Batuak-en datu fitxategi baten parte izango da, eta hurrengoa bermatzen da:

- **Konfidentzialtasuna.**
- **Errepresaliarik eza.**
- Datu pertsonalen segurtasun eta babesa, legeak dion bezala.

### **Konfidentzialtasuna:**

Informazio hori konfiantzarekin ematen dela eta besteei kontatuko ez zaielako segurtasunarekin.

### **Errepresalia:**

Pertsona batek beste norbaiten kontra jokatzeko duenean, honek aurretik iraindu edo mina egin diolako.